



5. Oñatiko inauteriak
SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

Oñati alkarregaz ezaguketako

5. Oñatiko inauteriak

MUINA

- Helburuak
 - Orokorrak
 - Sekuentzia honen helburua da irakasleak bideratutako elkarrizketa batetik ikasleen interesgune den gai bat ardatz hartuta ikasleen arteko elkarrekintza eta ekiten jardutea ahalbidetuz, beraien gaitasunak ahalik eta gehien garatzea. Horretarako Oñatiko tradizio bihurtzen ari den Inauteri jaiaren inguruko lanketa egingo dute. Modu honetan tradizioak nola sor daitezkeen ikasiko dute eta zehazki honi dagozkion kantak, dantzak eta bitxikeriak ikasiko dituzte. Gainera, Oñatiko inauterien edukiaren transmisore izango dira eta honen garrantziaz jabetuko dira. Gainera, azken proiektu handi moduan Oñatiko kaleetan barrena ikastetxe guztietako hirugarren zikloko ikasleek kalejira erraldoia egiteko proposamena ere badago.
 - Espezifikoak
 - Oñatiko Inauteri jaien inguruko eduki zehatza lantzea.
 - Hausnartzeko gaitasuna lantzea.
 - Besteen lana aintzakotzat hartu eta honen garrantziaz jabetzea
 - Erabakiak hartzeko gaitasuna lantzea
 - Antolaketa lanak dakartzan gatazkak kudeatzen jakitea.
 - Transmisorearen papera hartu eta honen garrantzia kontzientziara ekartzea.
 - Taldean erabakiak hartzen jakitea
 - Taldeko lanean erantzukizunez eta arduraz jokatzearen garrantziaz jabetzea.
- Azken xedea edo ekoizpena
 - Ikastetxearen komunitateko parte den norbaiti Oñatiko Inauterien informazioa transmititzeko euskarri bat sortzea. Honez gain, hiru ikastetxeek batera kalejira erraldoi bat egitea proposatzen da.
- Ikaste taldea

- Hirugarren ziklorako pentsatuta dagoen sekuentzia da, printzipioz. Jarduera batzuk egiteko irakaslearen laguntza beharko dute -antolaketari dagokion arloan, batez ere.

SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

***OHARRAK:**

-“I → II → III” Halako ikurrekin banatutako jarduerak modu kronologikoan egiteko dira. Hau da, lehenengo bat eta gero hurrengoa.

- “A): → B): → C):” Halako ikurrekin banatutako jarduerak momentu berean gertatuko dira. Normalean letra bakoitzak talde baten eginbeharra hartuko du bere baitan.

-Sekuentzia honetan hiru ikastetxeek batera lantzeko proposamena egiten da. Iñauteri egunean hiru ikastetxeak batera irteten ez badira, antolakuntzari dagozkion lanketa guztiak ez dira beharrezkoak. Txosten zuri hori betetzea nahikoa litzateke.

-Hiru ikastetxeek batera lanketa egin behar badute, Iñauteri taldekoekin zehaztuko da lanketa nola egin. Agian, sekuentzian haur taldeek duten ardura batzuk irakasleek edo Iñauteri taldekoek hartuko dituzte eta koordinatzea komeni da sekuentzia hau urratsez-urrats jarraitu aurretik, urtetik urtera aldaketak gerta daitezkeelako.

HASIERA FASEA

- 1. jarduera → Tradizioak betidanik daude hor?

Jarduera honen helburua izango da ikustea Oñatiko haurrek zein tradizio ezagutzen dituzten eta hauen inguruan etxean mintzatu eta bertatik informazioa ekartzea (hainbat euskarritan). Gomendatzen da urtarril edo otsailean egitea sekuentzia hau.

**Sekuentzia honen abiapuntua proposamen bat besterik ez da. Nahi bezala eman dakioket hasiera proiektuari, baina hemen bat azalduko da.*

I

-Irakasleak elkarrizketa bat bideratuko du eta Oñatiko tradizioen inguruan mintzatzeko hasiko da. Aprobetxatu daitezke gabonak, korpusak, inauteriak... Esate baterako, aipa daitezke laster inauteriak datozela eta ea ezagutzen duten bertan parte hartzen duen norbait. Honez gain, galdetu ahal zaie ea joaten diren ikustera, ea zer dakiten horren inguruan... Ea zein pertsonaia gustatzen zaien...

Eta behin arreta mantentzea lortu denean galdetuko zaie ea beste tradiziorik ezagutzen duten Oñatin - ulertzen baita Oñatiko inauteriek tradizio tanderara dutela dagoeneko -. Eta kontzeptu hau teorizatzen saiatuko da irakaslea ikasle guztien artean. Kontuan hartuta aurrezagutzak aktibatzen ari garela, ez dugu zertan definizio zehatzik eman behar momentuz. Beraz, halakoak galdetuko ditugu: *Zer da tradizio bat? Eta Oñatin zer tradizio daude? Tradizioak betidanik daude hor? (Galdera honi aurrerago egingo zaio kasu).* Galdera

hauek erantzuteko muga batzuk sentituko dituzte, agian. Eta komeni da etxean honi buruz hitz egiteko tarte bat eskaintzea. Horregatik informazio ahalik eta zabalena lortze aldera hurrengo proposatuko diegu:

II

-ETXEAN EGITEKO LANAK: Gurasoekin, aiton-amonekin, ezagunekin... hitz egitea eta Oñatiko tradizioen inguruko informazioa jasotzea hainbat euskarritan. Izena bakarrik izan daiteke, argazkiak, artikuluak, ikus-entzunezkoak... Helburua litzateke Oñatiko tradizioen inguruko ahalik eta informazio gehien ekartzea. Gero gelakideei aurkeztu beharko dio bakoitzak etxean edo ezagunen etxean* bildutakoa.

Komeni da informazio hau jaso dezaten esatea:

-Tradizioaren izena

-Noiztik ospatzen den Oñatin tradizio hori.

-Ea ezagunen batek bertan parte hartu duen, noiz eta zer egin duen.

-Ikasleek eurek ea inoiz ikusi duten

-Jai horretatik zer gustatzen zaien gehien

**Ezagunen etxean aipatzen da, izan ere, gelakideetako batzuren senideek, agian, ez dute Oñatiko tradizioen berririk eta haur hauek ere elkarrizketa hauek izateko aukera edukitzeko modu bat izan daiteke.*

III

-Behin informazio hori lortuta, gelan **asanblada eran eserita** norberak aurkeztu egingo du gelara ekarritakoa. Fitxan jasotakoa ere komentatuko da eta arreta jarriko zaio erantzun bakoitzari.

-Modu honetan berbaldi bat sortuko da eta irakaslearen iparra honek izan behar du: Hurrei transmititzea edo hurrek ondorioztatzea tradizioak noizbait berriak izan zirela. Hau da, tradizioak ez direla betidanik hor dauden ekintza edo jaiak, baizik eta noizbait sortuak izan direla eta lehenengo egun bat izan zutela. Beraz, tradizioak ere sortu ahal direla eta guk ere hori egin dezakegula.

**Hau galdera zuzenen bidez egin daiteke edota zeharkako modu batean, irakaslearen estiloaren arabera.*

IV

-Elkarrizketa hau izanda, irakasleak galdetuko die ea okurritzen zaien tradizio "berri" baten adibiderik. Inauteriena eurek esaten badute ezinobeto! Bestela irakasleak adieraziko du bere ustetan Oñatiko tradizio "berri"aren adibide garbienteko bat -garbiena ez bada-, Oñatiko Inauteriena dela.

-Baina, noski... Nola sortzen da tradizio bat? Galdera hau planteatuko die ikasleei eta bide batez Oñatiko Inauterien inguruko aurrezagutzak aktibatuko ditugu. Seguruenik asanbladan irten da hau eta informazio hori edukiko dugu guztiokin partekatze moduan. Bestela berriro galdetuko diegu ea zer dakiten hauen inguruan. Eta informazio hori jaso egingo dugu. Bigarren jardueran kontrastatuko dugu.

- 2. jarduera → Lehen galderak erantzuten

-Hurrengo jardueraren helburua izango da Oñatiko Inauterien inguruko oinarri-oinarrizko galderak denon artean erantzutea. Horretarako gela guztiak talde bakar modura funtzionatuko du 30 minutuz (bakoitzaren planteamenduaren arabera).

-Hauek dira erantzun beharko dituzten galderak:

-Noiz sortu zen?

-Nork sortu zuen?

-Zein pertsonaia daude?

-Bitxikeriarik?

**Modu oso laburrean erantzuteko galderak izango dira interes pixka bat pizteko. Geroago proposatuko diren jardueretan erruz sakonduko da galdera hauetan eta helburua ez da lana bikoiztea.*

-Galderak erantzun ahal izateko hainbat modu egon daitezke, segun eta zer landu nahi den. Posible da hurrei ordenagailuak utzi eta euren kabuz interneten saltseatzea. Baina taula didaktikoan testuak, argazkiak, gutunak... daude informazio horrekin. Beraz, nahi dena. Esan bezala erantzun luzerik ez da behar.

-Beraz, aurreko jarduerarekin lotura eginez, esango dugu orain bertan badagoela tradizio berri bat errotzen eta hori Oñatiko Inauteriena dela.

- 3. jarduera → Gonbidapen gutuna

-Informazio minimoa edukita, irakasleak gutun bat jasoko du eta gutun hori hurrei irakurriko die. Gutun hori Oñatiko Inauterien Lantaldeak idatzi duela esango du eta barruan gonbidapen bat daukala.

-Gonbidapen hori da Oñatiko Inauteri txikiak plazaratzea hiru ikastetxeek batera. Eta hurrei proposatuko zaie honakoa. Begi onez eta gogoz hartuko dutelakoan proposatuko da azken

proiektu gisa hau aurrera eramatea. Hala ere, plazaratze honi zentzua emateko eta guztia borobiltzeko, komunitateko kideei inauterien inguruko informazioa transmititzeko euskarri bat ere sortu beharko dute.

-Hau jakinda eta denon onespina jasota erantzun bateratu bat emango diote Iñauterietako lantaldeari. E-postaz idatziko dute erantzuna.

GARAPEN FASEA

- 4. jarduera → Lantaldeak sortzen

-Jarduera honen helburua da planteatutako bi helburuei aurre egiteko lan taldeak zehaztea. Honez gain, talde bakoitzean arduradun batzuk ere izendatu beharko dira. Lau talde egongo dira eta hauek dira:

- Iñauterien informazio orokorra** landuko duen taldea.
- Oñatiko Inauterien historia** berariaz jorratuko dutenak.
- Pertsonaiak eta arropak** aztertuko dituen taldea.
- Dantzak eta musikaren** inguruko informazioa bilduko duen taldea.

-Taldea hauek izendatzeko 2 aukera egon daitezke. Interesen araberako taldekatzea egin daiteke edo jolasen baten bidez. **Lehenengoa asanblada eran eserita** egitea proposatzen da eta **bigarrenerako jolas dinamiko** bat:

-**Taldekatzeko jolasa:** Demagun hogeit hamar laguneko ikastaldea dugula; lau talde badira, talde bakoitzean bost pertsona egon beharko dira.

Lehenik, espazio zabal batean, denak zutik jar daitezten eskatuko diegu eta espazioan zehar ibil daitezten baita ere. Esango diegu gure oharrak entzuteko eta gorputz atalak elkartzera jolastuko dugula.

Gero gu oharrak ematen hasiko gara: “Orain... 2 belarri elkartu!” Eta halik eta lasterren binaka jarri beharko dira pertsona baten belarria eta beste batena elkartuz. Eta denak nahastu arte jarraituko dugu horrela: “Orain 4 belaun”, “Orain 10 beso”, Orain... eta 4 minutu-edo jolasten ibili ostean 5 ipurdi batzeko esango diegu eta lekuan geratzeko.

Bada, horiek izango dira lau taldeak.

Azkenik, arestian aipatutako taldeen izenak edo eginbeharrak talde bakoitzari esan; hau da, egitekoa banatu.

-Behin hau antolatuta espazioa utziko dugu barneratu dezaten eta inongo gatazkarik gertatzen bada eta pertinentea bada, denbora eskainiko diegu taldean berau ahalik eta modurik onenean ebazteko. Horrelako momentuak aukera onak izaten dira emozioen berriazko lanketa erreala egiteko.

-Honez gain, talde bakoitzak koordinatzaile bat izendatuko du. Hau garrantzitsua izango da ikerketa bukatu eta geroko momenturako. Ez nahaste aldera ez da orain azalduko.

-Beraz, konforme egonez gero, hurrengo jarduerari ekiteko prest izango da taldea. Bertan talde autonomo gisa funtzionatuko dute.

- 5. Jarduera → Ikertzeari ekin!

-Taldetan banatuta daudelarik, 4 taldeek eginbehar diferentea izango dute eta denbora berdina. Baina komeni da azaltzea iparra zein izan behar den. Aurrez esan bezala, helburuetako bat Oñatiko Inauterien informazioaren inguruko transmisioa da helburuetako bat. Horretarako euskarri bat diseinatu beharko dute. Euskarri hori "liiburu" bat izango da eta maketatuta badagoen arren, ikasleei egokituko zaie edukia idaztea. Horretarako egingo dute lan hau.

4 zatitan azalduko da orain taldeek egin behar dutena:

A)

-IÑAUTERIEN INFORMAZIO OROKORRA landuko duen taldea.

-Informazio hau lortzeko Iñauteri lantaldeko bi kidek idatzitako informazioa izango dute irakurgai (**5. jarduerako I. eranskina**) . Helburua izango da horren laburpen bat egitea. Bertan inauterien historiaren inguruan informazioa irakurriko dute eta aukeraketa bat egin beharko dute. Jakinmina pizten bazaie, sarean bestelako informazio edo bitxikeriaren batekin osa dezakete lana - beste txostenekin alderatuta, lana orekatzeko-. Beraz, informazioa hautatutakoan ulertu beharko dute eta talde handian esplikatu ahal izateko adina jakintza eskuratu behar dute.

-Talde handian aurkezteko power point bat presta dezakete edo ez. Denboraren eta beharraren arabera.

**Irakasleak arretaz behatuko du koordinatzailearen lana. Berak derrigorrez izan behar du eduki gehiena barneratuta.*

B)

-OÑATIKO INAUTERIEN HISTORIA berariaz jorratuko dutenak.

-Informazio hau lortzeko Iñauteri lantaldeko bi kidek idatzitako informazioa izango dute irakurgai (**5. jarduerako II. eranskina**) . Helburua izango da Oñatiko Inauterien sorreraren inguruko laburpen bat egitea. Bertan inauterien historiaren inguruan informazioa irakurriko dute eta aukeraketa bat egin beharko dute. Jakinmina pizten bazaie, sarean bestelako informazio edo bitxikeriaren batekin osa dezakete lana.

Beraz, informazioa hautatutakoan ulertu beharko dute eta talde handian esplikatu ahal izateko adina jakintza eskuratu behar dute.

-Talde handian aurkezteko power point bat presta dezakete edo ez. Denboraren eta beharraren arabera.

**Irakasleak arretaz behatuko du koordinatzailearen lana. Berak derrigorrez izan behar du eduki gehiena barneratuta.*

C)

-PERTSONAIK ETA ARROPAK aztertuko dituen taldea.

-Informazio hau lortzeko lñauteri lantaldeko bi kidek idatzitako informazioa izango dute irakurgai (**5. jarduerako III. eranskina**) . Helburua izango da lñauterietako pertsonaiak ezagutzea eta duten zentzuaz jabetzea. Honez gain, Oñatiko Inauterietan eramaten diren arropen ingurukoak jaso: Nola janzten den pertsonaia bakoitza eta abar. Gainera, patrioiak ere egongo dira eta patrioiak irakurri eta ulertu beharko dituzte besteei azaldu ahal izateko.

-Talde handian aurkezteko power point bat presta dezakete edo ez. Denboraren eta beharraren arabera.

**Irakasleak arretaz behatuko du koordinatzailearen lana. Berak derrigorrez izan behar du eduki gehiena barneratuta.*

D)

-DANTZAK ETA MUSIKAren inguruko informazioa bilduko duen taldea.

-Informazio hau lortzeko lñauteri lantaldeko bi kidek idatzitako informazioa izango dute irakurgai (**5. jarduerako IV. eranskina**), dantzen bideoak ikusgai eta abestien partiturak eskura. Helburua izango da dantzak ikastea eta musika partiturak aztertu eta konposatzaileen inguruko informazioa biltzea.

-Talde handian aurkezteko power point bat presta dezakete edo ez. Denboraren eta beharraren arabera. Gainera, partituren oinarritzko analisisa aurkezteko musikako klaseak erabil daitezke (zer konpas daukan, figura erritmikoak, notak...).

**Irakasleak arretaz behatuko du koordinatzailearen lana. Berak derrigorrez izan behar du eduki gehiena barneratuta.*

- 6. Jarduera → Ikaskideei aurkeztuz, ikerketa osatu

I

-Talde guztiek euren lana bukatu ostean “puzzle” antzera denon artean ikerlana osatzen joango gara. Esango diegu adi egotea ezinbestekoa izango dela denek zentzua eman diezaioten hurrengo jardueran proposatzen denari.

-Isiltasunez eta arretaz entzungo dute talde bakoitzak prestatutako aurkezpena. Erronka bezala jarriko diegu komeni dela aurkezpen batetik bestera loturak egitea. Beraz, hala, bigarren taldeak aurkezten duenean lehenengo aurkezpeneko kontu batzuei erreferentzia egitea positibotzat hartuko da. Hala bi kontu adieraziko dituzte: adi egon direla eta aurkezten ari direnari zentzua aurkitzen diotela, edo lotura bat, bederen.

II

-Behin aurkezpenak bukatuta adieraziko diegu jaso duten informazioa altxor bat dela eta hori “modu polit batean” jarri behar dela beste norbaiti azaltzeko. Irakasleak esango du badagoela liburuxka antzerako bat diseinatuta eta horretarako oso erabilgarria dela. Eta galdetuko diegu ea nori gustatuko litzaiekeen hau azaltzea, ea nork uste duten informazio hau jakin behar duela... eta denon artean erabakiko da norentzat prestatu liburuxka hori.

**Izan daitezke gurasoak, aiton-amonak, ikasle gazteagoak, zaharragoak... komunitateko kide direnak, finean.*

-Baina horrez gain beste helburu bat pendiente badagoela ere gogora ekarriko die irakasleak **Oñatiko Inauteri Txikien kalejira!** Beraz, dena antolatze aldera berriro ere lanari ekin behar zaiola esango du irakasleak eta dauden beharrak zerrendatuko ditu denok buruan garbi edukitzeko zer den egin behar dena:

- Oñatiko Inauterien inguruko LIBURUXKA.
- Kalejirarako ARROPAK EGIN eta DANTZAK IKASI.
- Kalejira antolatu.

III

-Orduan, 3 lan hauek aurrera eramateko taldekatzeak birplanteatuko dira. Hogeitahiru laguneko talde bat buruan izanik hauek dira aurreikusten diren kopuruak:

-Oñatiko Inauterien inguruko LIBURUXKA. (4 -koordinatzaileak izango dira-)

-Kalejirarako ARROPAK EGIN eta DANTZAK IKASI. (14)

-Kalejira ANTOLATU. (2-3)

-Hurrengo jardueran finkatuko dira talde bakoitzaren zereginak.

EKOIZPEN FASEA

- 7. jarduera → Zabalkunderako prestakuntza

-Aurreko jardueran aipatu bezala, hiru talde egingo ditugu oraingoan. Liburuxka egingo duen taldea automatikoa izango da, aurrez izendatuta egongo direlako.

Kalejirako antolatzaileen paperean horretarako gai ikusten ditugun bi ikasle jarri ahal dira edo erronka bezala bizi ahal dutenak. Eta beste guztiak beste taldean egongo dira. Hauek dira talde bakoitzak egin beharko dituzten lanak.

LIBURUXKA TALDEA

-6. jardueran jasotako informazio guztiarekin plantillan emandako liburuxka informazioz bete beharko dute. Letra elegantea egitea, marrazkiak ondo margotzea... eskatu behar zaie. Finean, ondoren jaiak zertan diren azaltzeko euskarri elegante bat izan dezaten.

-Txantiloiean ("*liburuxka hutsik*") gomendatzen den moduan, informazio klabea idatzi beharko da. Pertsonaiak ere margotu beharko dituzte duten arropa kontuan izanda. Orokorrean, liburuxkan egin beharrekoa argi ikusten da bertan.

-Behin hori eginda, prest izango dute komunitateko beste edozein kideri azaltzeko euskarria. Honen laguntzarekin eta hau erakutsiz edonori azaldu ahal izango diote.

SASTREAK eta DANTZARIAK

-Hauek arropak egiteko materiala bilduko dute eta arropak egingo dituzte. Talderik handiena da, beraz, denbora gutxian guztientzat egin ahal izango dute hau. Honetarako deskargatzeko PATROIAK daude. Bertan ondo azaltzen da arropa zer eta nola egin behar den.

- Dantzak ere ikasiko dituzte. Hori egin ahal izateko, asmoaren arabera, hainbat modu daude:

-**Blogeko bideoak.** Bertatik ikas daitezke dantzak.

-**Dantza taldeko entseguak Eltzian.**

-**Aurreko urtean sekuentzia egin zutenengana jota** (ikasleen arteko transmisioa jorratu nahi bada).

-Taldea honen ardura eta helburu nagusia izango da guztiek arropa izatea eta guztiek dantzak ikastea, haiek izango baitira ez dakitenei irakasteko arduradunak. Entseguak programatu, irakaslearekin lotu... eta abar egin beharko dute.

ANTOLATZAILEAK

-Taldea honen ardura berezia izango da. Izan ere, momentu puntual batzutan batu beharko delako beste ikastetxeetako ikasleekin (eta irakasleekin, noski; haiek lagunduko diete guztian).

-Helburu nagusia da Oñatiko Inauteri Txikien kalejira antolatzea. Horretarako puntu hauek zehaztuko dituzte:

-Proposatzen den **IBILBIDEA** onartu edo moldatu (eta bateratu). Udaltzainei informazioa pasatzea momentu horretan bidea zaintzen egon daitezenean eta traban dauden piboteak ken ditzaten.

-**MUSIKA** (Ekipoa udalak jarriko duela ziurtatu eta musika haien eskutara heldu dela ziurtatu).

-Geldialdi bakoitzean eta kalejiran zer **POSIZIO** izango duten zehaztu behar da. Zein talde joango den non. Eta talde bakoitza nork osatuko duen ere aipatu behar da.

-**PERTSONAIAK** ere kalejiran irtengo dira. Hasiera batean Oñatiko Inauteri Taldea saiatuko da pertsonaiez mozorrotuko diren pertsonak lortzen, baina lortu ezean talde hau arduratu beharko da jendea topatzeaz. Kalejiran non joango diren ere zehaztu beharko dute.

**Hiru talde hauek etengabe informazioa trukatu dute, denok kalejiraren ikuspegi orokorra eduki dezaten eta norberak zer egin behar duen jakin dezan. Horretarako asanblada eran egindako bilerak proposatzen dira.*

- 8. jarduera → Azken ukituak

A)

-INAUTERI TXIKIEN KALEJIRA:

- **Dantzak** ikasita eta **arropak** eginda daudenean komeni da entsegu orokor bat egitea -gelan bertan, besterik ez bada ere-. Modu honetan denak ziur sentituko dira, eta inork beharrik edukiko balu, momentua litzateke laguntza eskatzeko.

-**Antolaketa:** Ordu-tegiak, posizioak, arropak, materiala... Dena eta denek argi eduki behar dute eta informazio-truke horretarako espazioak sortu behar dira. Bertan galderak eta abarrak sortuko dira eta denentzat izango da baliagarria. Hontaz antolaketaren taldea arduratuko da, noski. Baina beste inork zerbait esaterik badu, egin dezake.

B)

-IKAS-KOMUNITATEARI OÑATIKO IÑAUTERIEN AURKEZPENA:

-Aurreko jardueran bukatuta geratu den liburuxka hartzeko momentua heldu da. Lehenago denon artean erabakitako ikas-komunitateko kide multzo bati Oñatiko Iñauteriak zertan diren azaltzeko zita lotuko dute eta aurkezpena egingo dute.

-Hemen garrantzitsua da ikasleei esatea egiten ari diren lanak garrantzi izugarria duela. Tradizio baten inguruko edukia transmititzeak esan nahi du Oñatiko historia zati bat zabaltzea, eta horrek izugarritzko garrantzia du herriaren eraikuntzan.

C)**-BERRIA ZABALTZEA:**

-Kalejira herri-mailako ekintza garrantzitsu bat izateko, parte-hartzaileak izatea beharrezkoa da, baina are inportanteagoa da ikusleak egotea. Horregatik tarte bat hartuko da eta asanbladan gonbidapen motz bat egitea proposatzen da hurbilekoei kalejira ikustera joan daitezen gonbidatzeko.

-Beraz, hau idatzi ostean zabalkunde masiboa egiteko eskatuko diegu ikasleei. Ahoz, Whatsappez, e-postaz, kartezez... Beraz, mezua euskarri hauetako batean egin beharko dute.

- 9. Jarduera → Oñatiko Inauteri txikiak

-Heldu da eguna! Gaurko helburua gozatzea dela esango diegu haurrei. Ikasitako guztia herritarrei erakusteko momentua dela esango diegu, kontzientziara ekarrita betiere egiten ari diren horrek balio handia duela. Inauteriek zer esangura duten jakinez gero, zentzu osoa emango diete egiten ari direnari eta gainera, Oñatiko pertsonaiekin batera jakin behar dute zabaltzen ari direla mezu bat eta hain zuzen, hori dela tradizioak sortu eta elikatzeko bidea.

-Antolatzaileek aurrez esandako oharrei kasu egingo diete eta hori izango da egin beharrekoa. Azken orduko arazorik balego, komeni da bertan atentzioa jarri eta zentzora ekartzea. Esango diegu bi bide daudela, blokeatu eta ezer ez egitea edo irudimenari eragin eta akats hori aukera modura hartu zerbait diferentea egiteko. (Horrelakoetan atentzioa jarriko dugu ebaluazioan komentatzeko.

- 10. Jarduera → Bidea ebaluatuz

-Eguna pasata eta lehenbailehen taldea batuko da eta asanblada eran eseriko da. Eta ohi bezala egin den bidea marraztuko da. Kasu honetan paper handi batean egitea proposatzen da.

-Beraz, pausoz-pauso joango gara egin ditugunak izendatzen (kronologikoki) ekintza horri izenburu bat jarritz. Beraz, izenburuaren ostean jarriko dugu gutako bakoitza nola egon den hor eta zertarako balio izan dion. Horrela guztiekin amaitu arte.

-Lehenengo hitza TRADIZIOA izatea gomendatzen da, hortatik hasi baita dena. Eta hitz horrekin lotutako hausnarketak egingo dira. Hasiera bat izan zutela tradizioek, sekula ez dela berandu tradizio berri bati ekiteko... eta abar. Eta azken urratsa INAUTERI TXIKIAK izango dira eta horren inguruan berdina egingo da. Baina oraingoan proposatzen da azkenengo pauso horretatik lehenengora doan gezi bat marraztea. Horrela ulertuko baita norberaren ekintza ezinbestekoa dela tradizio bat sortu edota mantentzeko (edo alderantziz, behin betiko galtzeko).

-Orduan, ebaluazio honetako bidea, borobil handi bat izango da.

ERANSKINAK (FITXAK eta JAKINGARRIAK)

*Sekuentzia hau egiteko erabili den informazio guzti-guztia blogeko baliabide eta txostentxoetan daude. Orri asko direnez ez dira hemen gehituko.